



## KIROLHARRIAREKIN BAT AIZTONDON

Hilaren 27an Donostiako Belodromoan egingo den ekitaldia babestu dute bailarako hainbat kirolarik 6

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Asteartea**  
**2009-12-22**

VILURTEA 1.888. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



II. Txaranga Eguna ospatu zuten Tolosako kaleetan zehar, Erramun Oiartzabal laguntzeko asmoz. SARA GOMEZ

## OIARTZABALEN SENDIA «GUSTURA» TXARANGA EGUNAREKIN

**TOLOSA** Inguruko 200 bat musikarik Erramun Oiartzabali elkartasuna adierazi zioten herenegun; laguntzeko bi kontu korrante ireki dituzte 3

## Behi esne freskoa saltzen duen makina jarri dute Olaederra ondoan

**VILLABONA** Udalaren laguntzarekin Leaburuko Mahala baserriak jarri berri du makina, eskualdeko lehena, kiroldegiaren ondoan 4

## Punta-puntako sei bertsolari ariko dira hilaren 27an

**IBARRA** Hainbat elkartek Bertso Jaialdia antolatu dute Belabieta kiroldegian, 17:30etik aurrera 7



Irtenbideak jolas moduan aurkitu dituzte eskualdeko haurrek. E. EZEIZA

## Ibaiak nola zaindu behar diren jakin badakite haurrek

**INGURUMENA** Zuloaga Txikik irakatsi die eskualdeko bost urteko haurrei ibaiak zaintzen 2



neska eta mutil arropa



Jolas moduan, modu argian ikusi ahal izan zuten zeintzuk diren ibaiek pairatzen dituzten arazoak; ondoren, aurkitzeko, eman daitezkeen irtenbideak. E. EZEIZA

Zuloaga Ingurumen Eskolako en eskutik, ibaien inguruko hezkuntza eta begiruneari buruzko tailer batzuk jaso dituzte azken egunetan eskualdeko ikastetxeetako bost urtetako haurrek.

## Ibai garbi eta osasuntsuak izateko

### ESTI EZEIZA

Ingurumena zaintzea denon ardura da. Esaldi hori milaka aldiz entzun dugu denok, baina duela urte gutxi hasi zen horren inguruko kontzientzia zabaltzen herritarrengan. Maila handietan agian ez, baina gauza txikietan denok eragin dezakegu, eta hori sinestea beharrezkoa da aurrerapausoak emateko. Hau ikusita, hezkuntzan gero eta lan gehiago egiten dagatzen kontzientzia hori barneratzeko, eta aurrekoek egin dituzten akatsak berriro ez errepikatuko.

Etxeko txikienak egun dagoen arazoak jakitun egiteko, modu arin eta dibertigarrian ibaiei buruzko hezkuntza eta begiruneari buruzko tailerrak jaso dituzte egun hauetan Tolosako Errota haur liburutegian. Udalak martxan jarritako ekimen hau hil honen lehen-dabiziko egunetan hasi zen garatzen, eta atzo amaitu zen. Jarduera hauen helburua da, haurrak ibaiak

zaintzeko beharraz jabetaraztea eta hezte. Bost urteko haurrek hartu dute parte tailerretan, eskolako orduetan. Saiok zuzentzeaz berri, horretan aditu diren Zuloaga Txiki ingurumen eskolakoak arduratu dira.

Abenduaren 9an hasi ziren tailerrek, pertsona eta enpresen jardueren gizarte eta ingurumen erantzukizunarekin jokatzeko ez dutenean, ibaietako flora eta faunak daukaten eraginak zein diren

**Neurrien artean daude birziklatzea, urtegieta arrainen eskala eta ur lohiak arazteko kolektorea**

irakasten zaie haurrei tailer honetan.

Haurrek beraie txikitasun horretatik, gauza ugari ikusten dituzte, askotan, helduek uste baino gehiago gainera. Tailer hauetan, txikienengan ohikoa den bezala,

konplexurik gabe eta naturaltasun osoz azaldu dituzte, beraiek etxean ikusten eta ikasten dutena zer den. Hau da, ibaietan zenbat zikin-keria aurkitzen dituzten, beraie ingurukoek zein akats egiten dituzten...

Tailerrean, lehendabizi erakusten zaie, zein den gaur egungo egoera. Hau da, arrantzan gehiegi egiten dela, zaborrak eta hondakinak botatzen direla ibaira, eta oro har ez dela zaintzen inguru hau. Ho-

**Ibaiek garbi eta osasuntsu mantentzeko zein pauso eman behar diren ikasi dituzte**

rren ondortik, beraiek ikusita, zein ondorio ekin ditzakeen horrek, konponbidearen bila hasten dira jardunaldietan. Azalduz, zein neurri hartu daitezkeen hau ekiditeko. Horien artean daude: material ezberdinak gure ibaietara eror ez daitezkeen, papera, plastikoa eta beira birziklatzea. Honekin lotuta, urtegiak eta arrainek daukaten garrantzia eta erabilgarritasuna jaki-

narazten zaie haurrei. Bestalde, Tolosan egiten ari den urtegiak izango duen arrain eskalak bezala, arrainak ibaian zehar askatasun osoz mugitu daitezkeen, urtegi guztietan arrain eskala bat egiteak daukan garrantzia azaltzen zaie ere. Honez gain, kolektorearen lanak amaitzen ari direnean, honen eta ur lohiak ibaietara isuri aurretik araztu ahal izateko araztegiaren funtzionamenduaren erabilgarritasuna azaltzen zaie haurrei.

Horrela, eta onartutako neurriekin, jendearentzako, eta nola ez, ingurunea, fauna eta florarentzako egokiak diren ibai osasuntsu eta garbiagoz jabetzen dira haurrak.

Oso gertutik bizi dute eskualdeko haurrek ibaiek eta errekek pairatzen duten egoera. Oriak tailerretan aipatzen diren hainbat eta hainbat arazo sufitzen baititu, inguruan bizi direnen arreta faltaren ondorioz. Honen bestez, jarrera arduragabeen ondorioz ibaiek jasoko luketen egoera eta horretarako hartu beharko liratekeen neurriak jabetu daitezke bost urteko haurrak.

**@ Inkesta.** Azaroaren 27an inauguratu zuten Tolosako Nazioarteko Txotxongiloen zentroa, Topic izenarekin. Munduan ez dago horrelako zentrorik. Txotxongiloen etxean, museoaz gain, areto handi bat ere aurkitu daiteke. Izan al zara jada bertan? Ikusteko aukerarik izan al duzu? Zer iruditzen zaizu? Tolosari zein ekarpen egiten dio honek?

**www.tolosaldeko-hitza.info**

## Eskualdeko bi taldeen arteko derbian inork ez du garaipenik lortu

**Areto futbol** » 3-3koan amaitu zen larunbatean Laskorain eta Transportes Lacunzaren arteko partida.

### ERREDAKZIOA

Urtero garai honetan ematen den Gabonetako etenaldiaren aurretik, Villabonako Transportes Lacunzari bizilagunaren aurka jokatzea egokitu zitzaion, Laskorain areto futbol taldearen aurka hain zuzen ere, iragan larunbatean Usabal. Jakina da horrelako neurketek jokalariei eta zaleen eragingarri moduan funtzionatzeko dutela eta oraingoak ez zuten salbuespenerako biderik hartu.

Zirraraz beteriko lehia aparta bizi izan zen nahiz kantxa barruan zein harmailatan, bi alderietako taldekide eta jarraitzaileek barruan zuten guztia eman zutelarik azken garaipenerako zidorra aurkitzeko asmotan. Ondorio legez adostasunean amaituriko 3-3ko emaitzak itxi zuen bide batez 2009. urtearen azken partida. Puntu banaketa dena den, ez zen ez bata eta ez bestearen nahia asetzeko lain izan, biek izan baitzuten garaipena esku eskura neurraketa bere osotasunean aztertuz gero.

1-0 aurreratu ziren horitxoak Gil TDI-ak estreinak minutuetan eginiko gol bati esker. Jarraian gol aukera oparoak ikuskatu ahal izan ziren Endika atezainaren inguruenan batik bat. Baina azken honen lanak golik jaso gabe aldagelatu zituen ikastolakoak, abantaila xume baino garrantzitsu batekin.

Bigarren zatia hasi bezain laster ipini zuen 2-0koa Gilek berriro, kaleraturiko jokalariei kanpotar bat zela medio hiruren aurka jokatu beharreko 2 minututako tarteari etekin bikaina atereaz. Lakunzakoe dena den ez zuten amorerik eman eta berehala lortu zuten aldearen murrizketa 2-1ekoa igoaz markagailura. Telleriak berriro aurreratu zituen Alonsoren mutlak 3-1ekoa sareratuaz, baina Villabonakoak, ahalbide eta aukera guztietan sinetsiz, 3-3ko adostasuneraino ailegatu ziren. Istilu eta iskanbila ugariren ondorioz, azken 30 segundotan bi jokalariek gutxiagoren aurka aritu ziren tolosarrak baina eskualdeko beste taldearen atezaina bere lursaila ondo zaintzeaz arduratu zen denbora tarte horretan.

Lander, Ekhi eta Belloso jokalariei bajak zirela eta, Ilunbe filialeko jokalariek debuta egin zuten Nazional B mailan, itxura txukuna eta kalitate izpi ugari utziaz lehen-dabiziko taldearekin egindako bere hasierako minutuetan. Honen bestez, lidergoan jarraitzea erdietsi dute horitxoek.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## Iragarki laburrak

### SALGAI

■ **Txakurkumeak.** 2009ko irailearen 5ean jaiotako txakurkume eme nahiz arrak saltzen dira. Ama eta aita Braco alemaniar arrazakoak dira. Interesatuak deitu ondorengo zenbakira: 634 45 9110.

# Erramun Oiartzabalen aldeko Txaranga Eguna «baikorra»

**Gizartea** » 300 lagun inguru elkartu ziren Oreretako musikariaren alde dirua biltzea helburu zuen bazkarian.

INIGO TERRADILLOS

Herenegun hala bazirudien ere, ez, ez dira herriko jai garrantzitsuenak aurreratu, asko eta asko dagoeneko Inauteri gose egongo diren arren. Izan ere, txarangak kalean euren doinuak zabaltzen nabaritzen ditugunean horixe etortzen zaigu burura, Inauterietako giroa. Igandean, hala gertatu zen, egun osoan zehar izan baitzen entzungai Alde Zaharrean tolosar gehienei zirrara berezia sortarazten dien musika. Eta, ez festak ospatzen zirelako baina, bai ordea, festa giroa sortu nahi zelako.

Helburu jakin batekin antolatuta zuten bigarren Txaranga Eguna, Erramun Oiartzabali elkartasuna adierazteko, alegia. Pasa den urtean, Miguel Angel Azkarate Petas-i, zuen gaixotasunari aurre egiten laguntzeko asmoz antolatuta zen jaialdia, Kabi Alai elkarteak bultzatuta. Aurtengoan, berriz, Oreretako Erramun Oiartzabal musikariari laguntzeko egin dute. Saxofoi-joleak hemplegia du, irailaren erdi aldera jasan zuen burmuineko iktus baten ondorioz. Hori dela eta, berasendatzeko behar den tratamendua «oso garestia» da eta errehabilitazio zentroaren kostua «oso altua». Hain zuzen ere, herenegun antolaturiko ekimenean bildutako dirua musikaria sendatzen laguntzeko baliatuko dute.

## Familia «gustura»

Erramun Oiartzabalen familia «gustura» agertu da Txaranga Egunak izan duen harrearekin: «Dena oso ondo irten zen, eta eguraldi aproposa izan genuen gainera; Oso pozik gaude», azaldu du Ixak-ek Erramunen anaiak. Eguerdi aldera ekin zioten musi-

## Inguruko herrietako 200 bat musikari aritu ziren egun osoan zehar kaleak alaitzen

kariaren aldeko festari. Kalez kale aritu ziren txarangak ohiko doinuak jo eta jo. Tolosako, Beasaingo, Ordiziako edota Donostiako hamabi txaranga bildu ziren, 200 musikari inguru orotara.

Plaza Berrian guztiak bat egin eta gero Zerkausira jo zuten, han bazkaria baitzuten zain. 300 lagun elkartu ziren eta horiek txartela ordaintzeko erabilitako dirua da saxofoi-jolearen alde erabiliko dutena. Sendiak tolosarren laguntza eskertu nahi izan du, eta «bereziki» musikariena, «musu-truk aritu baitira, eta gero, gainera euren txartela erostearekin ere lagundu nahi izan dute».

## Laguntzeko bide gehiago

Txaranga Egunean parte hartuz lagundu zitekeen herenegun, baina badira bide gehiago Oreretako musikariari elkartasuna adierazteko. Esaterako, bi kontu korronte ireki dituzte diruz laguntzeko: Kutxa (2101 0022 04 0127112951) eta Euskadiko Kutxa (3035 0026 26 0261119578).



Plaza Berrian elkartu ziren txaranga guztiak, jende ugari erakarriz. SARA GOMEZ

Eskuratu



ko Bertsolari Txapelketa  
Nagusiko **DVDa**  
**berria** rekin



gogoratu noiz nahi historia egin duen txapelketa

txapelketako bertso hautatuak 2 DVD-tan

ABENDUAREN **24** TIK AURRERA,  
zure kioskoan



+ **12 €**

Baduzu zer oparitu  
Gabon hauetan!

Aukera ezazu,  
BIZI euskaraz  
**berria**



Egun osoan zehar kaleak ederki alaitu zituzten musikariak. SARA GOMEZ



# Behi esne freskoa erosi ahal izateko makina iritsi da Villabonara

**Villabona** » Eskualdeko lehen makina dugu Villabonakoa. Olaederra kiroldegia ondoan aurkituko duzue.

ENERITZ MAIZ

Elizondon, Gasteizen, Ordizian, Altsasun... eta orain Villabonan jarri dute baserriko esne freskoa erosteko makina. Eskualdeko lehen makina, Villabonako Udala-ren laguntzarekin, Mahala baserriak jarri du. Olaederra kiroldegia ondoan kokatu dute eta jada edonoren eskura dago, eguneko hogeita lau ordutan esnea erosteko aukera. Esnea eskuratze-ko, kristalezko edo plastikozko li-

troko ontzia, berrogeita hamar zentimoren truke eskuratu daiteke. Behin erosiz gero, ontzia bererabilgarria da, baina etxean dugun bat ere erabili daiteke.

## 2008. urtean egindako proposamena

2008 urteko uda bukaeran, Jokin Arrospide, Villabonako Udala inguratu zen esne makina jartzeko asmoak agertzera. Handik aurrerakoak, Maixabel Arrieta alkateak azaldu dizkigu: «Niregana zuzenean etorri zen eta nik lehenik eta behin, Josune Arretxe zinegotziari komentatu nion. Bion artean hitz egin ostean, herriari eskaintzeko zerbitzu ona zela iruditu zitzaigun eta herritarrek baserriko esnea zuzenean erosteko aukera



Udal ordezkariak, Jokin Arrospideekin batera, herritarrek esne ateratzen bukatu zain. E. MAIZ

izango zutela» azaldu digu. Jarraian beste zinegotziei aurkeztu zieten esku artean zeukaten gaia eta aho batez erabaki zuten aurrera eramateko moduko proiektua zela.

Orduan oraindik, esne makina hau Elizondon bakarrik zegoen eta nolabait ezezaguna zen. «Idazkariarekin ere gaiaren inguruan

hitz egin genuen eta posible zela ikusita aurrera eramatea erabaki genuen. Hala ere, urtebeterako kontratua egin dugu Mahalakoe-kin eta luzagarria izan daiteke» azaldu digu Arrietak.

Kokalekua ere bien artean aukeratu izan da: «Hasiera batean beste leku batean jartzea erabaki genuen baina uste dut Olaederraren

ondoan jarrita asmatu egin dugula» esan du Arrietak. Baserriar gehiagok interesa azalduko balukete, eta ezer ziurrik ez bada ere, «lehiaketaren bat edo egin behar-ko litzatekeela» azaldu digu alkateak. Villabonako Udalak soilik lekua jartzen du, hortik aurrerako guztia baserriararen gain gertatzen da: etxetxoa, zergak, argia...

## «Gure lehengaia esnea da eta industriara bidaltzean ez da bera»

JOKIN ARROSPIDE » Esne ekoizlea

**Leaburu** » Mahala baserriko behien esne pasteurizatua izango da salgai. Esne litro bat euro batean erosi daiteke.

E. MAIZ

Jokin Arrospide, Leaburuko Mahala baserrikoak jarri du Villabonako esne makina. Esnekien munduan, ezaguna da Mahala baina orain, eguneko esne freskoaz gozatzeko aukera eskaintzen dute Villabonako Olaederra kiroldegia- ren ondoan.

**Egun batzuk badira martxan jarri dela. Zein erantzun izan du?**

Erantzuna ona izaten ari da. Oraindik berria da eta garrantzi-

tsuena, jada egunez egun jendea hor dabilela eta jarraipen bat badiela ikustea izan da. Gutxieneko eguna 100 litrotik gora saldutakoa izan da.

**Eta nongo esnea da?**

Leaburuko Mahala baserriko gure behien esnea da.

**Zergatik eman duzue pausu hau?**

Duela 12-13 urte gaztak eta jogurtekin hasi ginen, esnearen kalitate- arigarrantz handia ematen diogulako. Gure lehengaia esnea da eta primerakoa da. Esne hori industria- ra ez bidali kalitate berekoa eta guretzat ez zen bide zuzena. Industrializatu egiten da eta bueltan merkaturatzen den produktua, oso elaboratua eta hondatua datorren produktua da.

**Makineria eta inbertsioa egitea eskatzen du honelako makina bat jartzeak. Zuek ordea alde horretatik ez duzue zailtasun handirik izan ezta?**

Bai, alde horretatik guretzat errazagoa izan da. Barruan inbertsio txiki bat egin behar izan dugu egokitzeko baina bestela Villabonako makina jartzea eta gestioa egitea izan da. Ilusio izugarria egin zidan Elizondon jarri behar izan dugu entzun nuenean, baita Italian eta Suitzan asko erabiltzen ari zirela jakiteak.

**Zenbat litroko kapazitatea du?**

300 litro eskas kabitzen dira.

**Zer da esne pasteurizatua?**

Bi era daude esne pasteurizatze-ko. Guk, plaken sistema erabiltzen dugu; ura edo esnearekin berare-



Jokin Arrospide eta Maixabel Arrieta, herritarri begira. E. MAIZ

kin gurutzatzen da eta gurutzake- tarekin, esnea, 72 gradutara iristea lortzen da segundo batzuetan eta nolabait esne horti egosi egiten da, edangarri bihurtuz. Ez du irakiten esneak. Batez ere, esneak eduki di- tzakeen bakterio txarrak hil egiten ditu. Legeak hori edan daiteke, bes- tela ezin dugu saldu. Aldiz, Zelan-

da Berrian gordinik edaten dute eta denek horrela nahi dute.

**Zergatik Villabona?**

Leku gehiagotan ere eskaria egin dut baina, Villabonako Udalak gauza bat ongi egin badu, eskuak zabaltzea izanda. Udaletxe askori kostatzen ari zaie ateak irekitzea. Villabonak segituan ikusi zuen in- teresantea zela.



**MOTO-JAUZI JAIALDIA**  
5 sarrera

Abenduak 26 • Larunbata  
Donostiako belodromoan

Saridunak bihar



HITZAK sarrera pare bat du

**LAGUN ARO GBC**  
MTT Estudiantes

saskibaloitza partidarako  
Abenduak 27 • 12:30 • Illunben



**BERTSO JAIALDIA**  
sarrera pare bat

Abenduak 27 • 17:30ean  
Ibarrako kiroldegian

sarrerak eskuratzeko deitu 943-65 56 95 telefono zenbakira

## Gutunak

### Hator, hator, neska, mutil etxera....!!!

Egun bereziak ditugu inondikino- ra Gabonetakoak. Mahaiairen bueltan, familiaren epelera elkartu eta momentu goxoak igarotzeko- ak. Egun berezi hauetan gogoan izan nahi ditugu Euskal Herriko hainbat etxetan egongo diren aulki hutsak. Aulki horiek beteko lituz- keten euskal herritarrak, aita- amak, seme-alabak edo aiton- amonak espainiar eta frantziar es- petxeetan preso mantentzen dituztelako.

Euskal preso politikokoak eta be- raiaren senideak, sekulako zigorra jasaten ari dira espetxe politika krudel honen menpean. Momen- tu hauetan 7 euskal preso gaixota- sun larri eta sendaezinezkin espe- txean mantentzen dituzte, hiltze- ko arrisku larrian horietako batzuk. 45 presok dute ezarri zie- ten kondena osoa bete, eta hala ere, espetxean jarraitzen dute, Pe- llo Odriozola kasu. Ehunaka dira baldintzapeko askatasuneko epea beteta preso jarraitzen dutenak eta azkeneko sarekada eta gero preso kopurua inoiz baino altuena da frankismo garaitik hona, 762 pre- soena hain zuzen ere, hauetatik 700 baino gehiago daude Euskal Herri- tik ehunaka eta milaka kilo- metro tora, beraien hurbilekoen- gandik urrunduta. Horietako asko bakardade gorrian. Espetxeetan eguneroko ogia dira jipoiak, lagun eta senideekin komunikatu ahal izateko debeku eta zailtasunak, ama edo aita duintasunez izateko oztopoak, ikasteko trabak...

Sakabanaketa, preso bera in- gurusozial eta familiarretik urrun- tzeaz gain, Euskal Preso Politikoa

en Kolektiboaren batasuna apur- tzeko asmoz estatuek diseinaturi- ko apustu kriminal eta hiltzailea da.

Euskal Preso Politikoen Kolek- tiboari osotasunean eta gure seni- tarteko eta lagunei, edo beste modu batera esanda, gure inguru sozial eta familiar guztiari aplika- tzen zaion mendeku eta xantaia politikoa honek ondorio larri eta dramatikoak ekartzen ditu.

Amnistiaren Aldeko Mugimen- dutik, Gabonetako data hauek di- rela eta, bat egiten dugu preso eta iheslariekin. Bide batez antolatu ditugun ekimenetan parte hartze- ra gonbidatzen zaituztegu. Horiek horrela, etzi, abenduak 24, Olen- tzeroko egunean goizean kantari ate- rako gara kaleetatik barrena eta 18:45ean Triangulotik hasita ma- nifestazioa egingo dugu. Aben- duaren 25ean, azken ostirala iza- nik, elkarretaratzea egingo dugu 19:30ean; eta urtarrilaren 2an Bil- bon manifestazio nazionala izan- go da. Aipatu ere, sakabanaketa politikak sortzen duen odoluste ekonomikoari nolabait eta ahal dugun neurrian aurre egiteko, pre- so eta iheslarien aldeko Elkartasun Denda zabaldu dugula Gabonak iraun bitarte, Korreo kaleko 7. zen- bakian, eta urtero bezala, Tolosako komertzio eta tabernetatik pasako garena ahal eta nahi duenak bere ekarpen ekonomikoa egiteko.

Tolosarron elkartasuna eta par- te hartzea alde zuretik eskertuz, eta gureak berandu baino lehen etxean izan ditzagun, besarkada bat eta urte berri on bat izatea opa dizuegu.

**Mikel Zabala**, Tolosako Amnistiaren Aldeko Mugimenduen izenean.

## «Giro ederra eta epeltasuna» Azoka Bereziko protagonista

**Bedaio** » Hamabi salmenta postu bildu ziren herenegun eta hainbat ikuskizunekin gozatzeko aukera ere izan zen.

### ERREDAKZIOA

Herenegun Bedaion Azoka Bere- zia izan zuten. Antolatzaileen hi- tzetan, «protagonista ez zen hotza izan, giro ederra eta epeltasuna baizik». Jende ugari bertaratu zen eta salmentak ere ondo joan ziren. Hamabi salmenta postu egon zi- ren eta baita ikuskizunak ere. Izan ere, «harigileak goiz osoan haria egiten aritu ziren, talogileak jende- aren eskea baretu zuten eta suaren



Antolatzaileek datorren urtean ere Azoka Berezia egitea espero dute. HITZA

inguruan jende ugari gaztaina errean zain ere egon zen». Bazka- rian ere jende andana bildu zen, txartel guztiak saldu zituztelarik.

Antolatzaileak oso gustura agra- tu dira emaitzarekin eta datorren

urtean errepikatzeko asmoa dute- la argitu dute.

Era berean, aurtengo berrikun- tzen artean herriko gaztetxoaren musika ikustaldia nabarmendu dute antolatzaileek.



IZAN BAININTZEN NAFARROAK ERREGE  
Izabela Ispizua



EZ NAIZ SIRENA BAT ETA ZERT?  
Kortxo Agirre - Eider Elber



ANE PIRATA  
Pirata, Pirata eta Marikak



MUSIKA AIREAN  
Kortxo Agirre



EZEKIEL  
Joaquín Chacón



LONDRES KARTOIDEA DA  
Luis Zaramago

Kulturren

Koldo Mitxelena Kulturunea  
Lindaketa kalea 9 • 20006 LEIOA  
Tel.: 943 11 28 93  
programazioa@kulturren.net  
www.kulturren.net/kultura

## ERAKUSKETAK

Zakarontzak astintzen

Bizitzaren aritzara-jokoa

Erakustetuan

Erakustetuan

**ORDUTEGIA**  
azaroatik hasierara:  
11:00-14:00 / 16:00-20:00  
astelero, igande eta jaiegunetan itxita  
Bisitaldi gidatuak: lebi@kulturren.net  
Tel. 943 112 756 / 667 346 025

Tolosako Udalak  
Kultura eta Kirola Departamentua





Aiztondo bailarako zenbait kirolarik Villabonan eginko agerraldia. E. MAIZ

## Belodromoan lehenengo harria jarriko dute kirolariek

**KirolHarria** » 18:00etatik aurrera hasiko da ekitaldia, hainbat kirolariren erakustaldi bereziak eta bertsolariak izango dira.

### ENERITZ MAIZ

Aiztondo bailarako zenbait kirolari, Gurea Zineman elkartu ziren abenduaren 27an, Euskal Herriko Kirolariak erakundeak, Donostiako Anoeta belodromoan egingo den KirolHarria ekitaldiaren berri emateko. Euskal Herriko hainbat kirolari ezberdinek sinatu duten atxikimendu testua irakurri zuten, bat egiten dutela adieraziz.

### Kirolarien atxikimendua

Realeko jokalaria den Iñigo Sarasola, Ainhoa Mendia eta Hassan Ait-Chaoui korrikalaria, Lakunza eta Urritzeta Jatetxea futbol taldeko jokariak, Juan Manuel Erasun segalaria, Behar Zanak pilotariak edota Euskal Herriko Kick Boxing-ekoak izan ziren agerraldian.

Hiru puntuak testu bati ematen diote atxikimendua kirolariek. Lehen puntuan haxe adierazten dute: «Kirola egitean, Euskal Herria, aintzat hartuaz, euskal herri-tar gisara aritzeko aukera izatea». Jarraian, «Nazioartean, bakarka edo taldeka, geure herria (Euskal Herria) ofizialki ordezkatuaz parte hartzeko aukera izatea» nahi

**Kirolak, arteak, kulturak eta aldarrikapenak bat egingo dute igandean KirolHarria ekitaldian**

dutela esaten dute eta azken puntuan; «honetarako, zazpi euskal lurraldeetako kirolariok barnean bilduko gaituen tresna baten beharra aitortzea. Eta hau sortzen saiatzeko gure borondatea» aldarrikatzen dituzte.

Idea hauekin bat egiten duten hainbat eta hainbat kirolarik, indarrak bildu, metatu eta elkarrekin bide berri bat hasi dute. Lehenengo harria, igandean jarriko dute

Belodromoan, KirolHarria deitu duten ekitaldian.

Villabonako Maxola tabernan, izena emateko zerrenda jarri dute. Bertan izena ematea nahikoa izango da, igandean Anoeta Belodromoan joateko. Bestela, 635 711 274 telefonora deituz ere apuntatu daiteke. Antolatzaileek gonbita luzatu nahi diete «gazte, bikote edota familie» ekitaldira joateko. «Arratsalde atsegina batez gozatzeko aukera izango baita bertan».

### » KIROLHARRIA

#### Abenduak 27, 18:00etan

■ **Belodromoan.** Euskal Herriko kirolariak Erakundeak antolatuta.

■ **Doan.** 4.500 - 5.000 lagun sartzeko aukera dago.

■ **Egitaraua.** Sokatira, Arrauna, Kick Boxing, Triala, Eskaladan Irati Anda eta Gorka Karapeto, Aizkolari eta trontzalariak txalapartaren erritmoan, xakea, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako finalista kopletan, Harri zulatzaileak eta ekitaldi sinbolikoak izango dira.

## Maila Nagusiko Finalean Mujika eta Otaegi primeran aritu dira

**Kirola** » Jexux Mari Mujika ibartarra laugarren eta Joseba Otaegi zizurkildarra bosgarren sailkatu ziren beraien lehen finalean.

### E. MAIZ

Atzo Arbizon jokatu zen Maila Nagusiko Euskadiko Aitzkora Txapelketan, Nazabalizan zengaraile Bertan Nazabalez gain, Lope, Azurmendi, Senosiain eta eskualdekoak ditugun Jexux Mari Mujika ibartarra eta Joseba Otaegi zi-

zurkildarra izan ziren. Aizkolari bakoitzak hamabina pago-enbor ebaki behar izan zituen: lau kanaradiko, lau 60 ontzako eta lau oinbiko hain zuzen ere.

Azken urteetan bezala, iragarpen guztiak betez, Nazabalez eskuratu zuten beste behin ere txapela. Arantzakoak 37 minutu eta 20 segundo nahikoak izan zituen egin beharreko lanak amaitzeko. Bigarren, Lope sailkatu zen eta bere lana 40:25ko denboran amaitu zuen. Hirugarren postuan, 41:07ko denborarekin Azurmendi sailkatu zen.

### Lehen finalean, lan bikaina

Jexux Mari Mujika, bere lehen finalean, azken unera arte bigarren posturako lehian ibili zen. Azkenean, laugarren sailkatu bazen ere, 41:18an bukatu zuen bere lana maila bikaina erakutsiz. Bosgarren sailkatua berriz Zizurkilgo Joseba Otaegi izan zen eta honek ere bere lehen finalean, maila txukuna erakutsi zuen, bere lana 44:35an amaituz. Eskualdean, aizkorak etorkizuna ziurtatuta du biziakolarik gazte hauekin. Seigarren eta azken postuan, Senosiain sailkatu zuen bere lana 46:28an amaituz.



## TOLOSAKO UDALA

### IRAGARKIA

**IL.1 "LASKORAIN GOIKOA" EREMUKO BIRPARTZELATZE PROIEKTUAREN LIKIDAZIOA. ALEGAZIOAK EBATZTEA ETA BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEA.**

Tolosako Udaleko Gobernu Batzarrek, 2009ko urtarrilaren 26an, besteak beste, ondorengo erabakia hartu zuen:

Gobernu batzarrek, 2006ko ekainaren 26an egindako bilkuran, hasierako onespina eman zion: IL.1 "Laskorain Goikoa" eremuko Birpartzelatzaren Likidazio Proiektu Zuzenduari.

Espediente jendaurrean jartzeko iragarkia argitaratu zen Gipuzkoako AO (2006ko uztailaren 13ko 133 zenbakian) egunkarietan (Gainera, Diario Vasco de Tolosaldeko Hitza, 2006 uztailaren 11n), eta Udaletxeko iragarki taulan. Gainera jakinarazpen pertsonalak egin ziren. Honako alegazio hauek aurkeztu dira:

- 1.-Luis Garmendia Vitorik 2006ko uztailaren 28an (sarrera erregistro zenbakia 8071) izenpetutakoak.
- 2.-José Antonio eta Juan Ignacio Iturzaeta Ugartemendiak 2006ko abuztuaren 2an (sarrera erregistro zenbakia 8196) eta 2006ko irailaren 13an (sarrera erregistro zenbakia 9227) izenpetutakoak.
- 3.-Maria Begonia Arbillaga Mugica eta Maria Jesús Gorroategui Picasarrik 2006ko abuztuaren 2an (sarrera erregistro zenbakia 8197) eta 2006ko irailaren 13an (sarrera erregistro zenbakia 9228) izenpetutakoak.
- 4.-Juana Arbillaga Sasianek 2006ko abuztuaren 3an (sarrera erregistro zenbakia 8243) izenpetutakoak.
- 5.-Caldereria Urto, SL-k 2006ko irailaren 18an (sarrera erregistro zenbakia 9397) eta 2006ko azaroaren 22an (sarrera erregistro zenbakia 11807) izenpetutakoak.
- 6.-Lucas Mendicutte Jaureguik 2006ko irailaren 22an (sarrera erregistro zenbakia 9597) izenpetutakoak.
- 7.-Edurne Marquiegui Lizasok 2006ko azaroaren 22an (sarrera erregistro orokorra 11806) izenpetutakoak.

Ikusita alegazio horiei buruz, IL.1 "Laskorain Goikoa" eremuko Birpartzelatzaren Likidazio Proiektu Zuzenduarien egileak eta Hirigintza Teknikariak idatzi dituzten txostenak, Hirigintza Batzordeak, 2008ko urtarrilaren 25ean egindako bilera, besteak beste, aurkeztutako alegazioak ebazte eta kitapenaren proposamenari behin betiko onespina ematea diktaminatu zuen.

Gobernu Batzarrek, 2008ko otsailaren 11an egindako bilera, mahai gainean utzi zuen kitapen-proiektuaren behin betiko onespina, Juan Arbillagak aurkeztutako alegazioa behar bezala ebazti bitartean.

Ikusita Hirigintza Teknikariak 2009ko urtarrilaren 13an egindako txostena, eta Hirigintza batzordeak honi buruz jaulkitako diktamenarekin bat etorritik, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### ERABAKI DU:

**LEHENEA.** Aurkeztutako alegazioak ondoren jasotzen diren terminoetan ebaztea:

- 1.1.-José Antonio eta Juan Ignacio Iturzaeta Ugartemendiak, eta Maria Begonia Arbillaga Mugica eta Maria Jesús Gorroategui Picasarri jaun-andreak egindako alegazioak ezetzea, idatzi diren, eta espedientearen ageri diren txostenetan ematen diren arrazoietan oinarrituta.
- 1.2.-Caldereria Urto, SL-k egindako alegazioak ezetzea, idatzi diren, eta espedientearen ageri diren txostenetan ematen diren arrazoietan oinarrituta.
- 1.3.-Lucas Mendicutte Jauregi aurkeztutako alegazioak ondoren zehazten den moduan ebaztea:
  - 1.3.1.-1 zenbakidun partzelan gauza-tutako konpentsazioaren soberakina 7 zenbakidun partzelan konpentsatzeko eskariari dagokionez, adieraztea Udalaren ahalmena dela batean edo besteetan konpentsatzea eta horrek ez duela eragiten dokumentuan.
  - 1.3.2.-Trenbide azpiko pasabidea eraikitzeko gastuei dagokien kuotaren ordainketa bermatzeko eskatu zen abala itzultzeko eskariari dagokionez, itzulketa egitea baldin eta agiri bidez egiaztatzen bada hura aurkeztu zela.
- 1.4.-Edurne Marquiegui Lizaso andreak egindako alegazioak ondoren jasotzen den moduan ebaztea:
  - 1.4.1.-Eraikitentatik ezarritako indennizazio partidan sumatutako akats aritmetikoa konpentezko eskaera dela eta, aipatu akatsa konpundutzat jotzea. Izan ere, Likidazioaren Dokumentu Erreformatuan halaxe dago jasota.
  - 1.4.2.-Ez onartzea "akats kontzeptuala" dagonik azpiko pasabidea egiteko gastuen partida bat sartzean dokumentuan, hura lotzen duela beste zera honekin: alegia, RENFEK egindako pasabide berriaren gaineko kosturik ez sartzearekin dokumentuan. Ezespina emateko arrazoiak hartaz jaulkitako txosten juridikoetan adierazten dira eta espedientearen daude jasota.
- 1.5.-Onartzea Juana Arbillagak egindako alegazioak.
- 1.6.-Luis Garmendia Vitorik egindako alegazioak ebaztea ondoko era honetan:
  - 1.6.1.-Ez onartzea alegazio hau: birpartzelatzaren behin betiko likidazioa egiteko ezintasuna, hura onartu zenetik bost urte baino gehiago iragan direlako. Ez onartzea arrazoiak horretaz egindako txosten juridikoetan adierazten dira eta espedientearen daude jasota.
  - 1.6.2.-Eraikitentatik ezarritako indennizazio partidan sumatutako akats aritmetikoa konpentezko eskaera dela eta, aipatu akatsa konpundutzat jotzea. Izan ere, Likidazioaren Dokumentu Erreformatuan halaxe dago jasota.

**BIGARRENA.** Behin betiko onespina ematea IL.1 "Laskorain Goikoa" eremuko Birpartzelatzaren Likidazio Proiektu Zuzenduari, Manolo Blaskok 2007ko urrian idatzitakoari, hain zuzen ere.

**HIRUGARRENA.** Ondorioz, interesa-tu bakoitzari dagozkien likidazioak bideratzea, aipatutako likidazioak aldez aurretik Kontuhartzailetatik fiskaltzatu beharko direlarik.

**LAUGARRENA.** Kitapen honek ukitutako jabe desberdinek ordaindutako erreklargu eta interesei dagokionez, erreklargu eta interesei konpentezko ordaindutako kopururik konpentsatu egingo dira, 2009ko urtarrilaren 13ko txosten juridikoari itsaitako dokumentuan zehazten den moduan.

**BOSGARRENA.** Likidazioaren onarpen definitiboaren ondorioz, interesatu bakoitzari egokitutako saldoaren berri emango zaio Jabego Erregistroari, honek aipatutako bakoitzaren ondano aipatu saldoa idatzi dezan (art. 19.1 de Normas Complementarias al Reglamento para la Ejecución de la Ley Hipotecaria).

**SEIGARRENA.** Behin betiko onarpeneren erabakia Gipuzkoako AO-ean argitaratuko da eta argitarapen honek Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak bere 59.4 artikuluan zehaztutako ondorioak izango ditu notifikazio pertsonala egin ezin izan zaien interesatu edo partzelen jabeentzako.

Erabakia behin betikoa da, eta bide administratiboari amaiera ematen dio. Erabakiaren kontra honako erreklargu hauek jar daitezke:

Administrazioarekiko auzi erreklargu. Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian erabaki hau jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

Birjarpen erreklargu (nahibadako) Alkateetan, lehen aipatutako erreklargu jarri aurretik, erabaki hau jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik hilabete baten barruan.

Tolosan, 2009ko abenduaren 11n. **ALKATEA.**



## Iraganik gabe, ezin gerorik eraiki



### » Herrira begira

**Aimar Sagastibelza**  
Futbol jokalaria

**B**ost partidu segiden irabazi ondoren, oso giro ona eta konfiantza zen nausi ekipoan. Egie esan, holako momentutan gustoa ematten do talde horren partaide

izatek. Aldagelatan giro bikañe, indako lanak funtzionatzen dola ikustek sortzen don poza... denak alai.

Nere kasun, oso gustoa aurkitzen nitzen; izane, azken aldin malle nahiko ona ematten bainebillen. Gañea, garaipeneko gol bat sartzeko aukera euki nun partidu inportante bateko luzapenen, eta gurasoak partidue ikusten zeudenez, ba ilusio oaindik sakonagoa. Haintzat eskeiñie gola, nola ez.

Bestalde, aurtengo gure egutegie osatze arduratu denak zartakoe earrak mezi ditto. Osota aldrebesa da, eguerrikato eun puntua-

lak izan ezik (abendun 25a eta hildeltzan 1a) gañontzeko eunetan hemen ai beharkou. Zer eta denboraldiko opor bakarrak abenduko zubin izan giñuzen, ezto iñongo zentzuik. Gañea, pasata daude, earramartxa, jeje... Askotan esateitea launek urte osoan oporretan naula eta ez nearrik itteko, beño beno tarten-tarten etxera joatek urrea balio do, nere ustez behintzat.

Oporretatik bueltatu eta pasa den ianden bukatu zitziun ratxa ona. Guretzat oso inportantea zen partidue galdu giñun, oso irudi exkaxa emaneg gañea. Beño oaindik opari bat gordea zun eunek gure-

tzat: atsaldoko seietan abittu giñen Teruel aldera partidutik bueltan eta elurte latz bat zelamedio goizeko hiruetan aiatu. Nazka. Noski, oain datorren partidue irabazteko beharren gaude, Klubek obligazio gisen exijittu do...

Hau dena alde batea utziz, azkenaldiko bi gertakari attatu nahi nituzke. Batetik, 4terdiko txapeldun berrie den Gonzalez. Gutxitan ikusi den belozidaden ibilli zun finalen pillota eta momentuko one na den Irujo airen ibilli zun. Guztiz merezie txapela.

Bestetik, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako aurreneko neska txapeldune, Maialen Lujanbio. Bertsozale amorratue naiz eta sekuleko pena dauket finalen eon ezin izanaz. Behintzat txapelketa-

ko saio guztik ikusteko aukera izan dot internetez, ezta gutxi. Noski, finala ikusi. Earra finala, uff. Hitz soille ibilliz hainbesteko sentsazio sakonak eragitteko gaitasun itzel horrek ezto prezioik.

Finalai daokionez, nere uste apalen txapeldun bidezkoa da Maialen. Buruz-burukoan Amets bertsolari bikañe goraxeotik aittu zen, beño goizeko saioan Maiale-nekkolpea joa zun...

Andoni Egaña (nere ezauerako haundina) azken aldiz ikusi giñun Txapelketan, hunkigarrie. Utzi don ibilbidea ezin da berdindu. («nahiz diferentzia badagon egon jertzetik jeistera, ni oso harro pasako naiz naturala horixe da, behien aulkiak aipatzetik behian aulkiak jartzera»).



Puntako sei bertsolari etorriko dira Ibarra hilaren 27an. Sarrerek alde aurretik 8 euro balio dute, egunean 10. HITZA

## Mendiluze, Arzallus, Egaña, Silveira, Elortza eta Agirre etorriko dira Ibarra

**Bertsolaritza** » Herriko hainbat elkarte Berts Jaialdia antolatu dute hilaren 27an, igandean, 17:30ean Belabietan.

ASIER IMAZ

Ibarra hainbat elkarte Berts Jaialdia antolatu dute hilaren 27an, igandean, Belabietan kiroldegian. Saioa 17:30ean hasiko da eta

izen handikosei bertsolari elkartuko dira bertan: Aitor Mendiluze, Amets Arzallus, Andoni Egaña, Xabier Silveira, Igor Elortza eta Amaia Agirre.

Gai-jartzaile lanetan Pototxotx bertso eskolako kideak arituko dira.

### Sarrerek erosteko aukera

Berogailu sistema edukiko duen Berts Jaialdira joan nahi dutenek, sarrerek 8 eurotan aurkituko di-

tuzte hainbat herritako beste hainbat txokotan. Ibarra: Atarin, Zubiaurren, Danon Txokoan eta Lurdes liburutegian; Tolosan, Denak eta Raku tabernetan; Anoetan, Itzuli tabernan; Villabonan, Iratzen; Alegian, Izkiña tabernan eta Leitzan, Torrean.

Egunean bertan ere sarrerek erosteko aukera egongo da Ibarra-ko Belabietan kiroldegian atarian. Hori bai, kasu honetan 10 euro ordaindu beharko dira.



## San Tomas Azoka lagun berriekin

**ABALTZISKETA** » Eskolako haur, guraso eta irakasleek artzain andrez jantzi-ta ospatu zuten San Tomas Azoka iragan ostiralean. Plazan egitekoak baldin baziren ere, eguraldiak frontoira eraman zituen. Bertan jarri zituzten barazki, eskulan eta lanabes postuak. Zubietako eskolako ikasleak bisitan izan zituzten eta denek gaztainak jateko aukera izan zuten. HITZA

## Hilberria

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldecohitzza.info / Tel.: 943-65 56 95

### MIGUEL ANDA ORRUÑO

Gure herrian maisu lanetan urte ugari emanik izan duzu nahiko lanik zenbat istori kontatu diguzu «En mi pueblo» beti ahotik zuk egindako urte guztiak ez dira izan alferrik.



Zumaia Herri Eskolako lankide ohiak

**ZUMAIA**  
2009ko abenduaren 22a



10°  
4°

|         |       |
|---------|-------|
| GOIZA   | EURIA |
| ARRATS. | EURIA |
| BEROENA | 7°    |
| HOTZENA | 5°    |

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo.  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak**  
**S.L.ko kideak:**

**BERTAKO**  
HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta  
Leizaldea beste 77 eragile

**Hitza-k Bai**  
Euskarari

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

■ **Alegia.** Isabel Millet kontu kontari ariko da herriko liburutegian 18:00etan.  
■ **Tolosa.** Bonberearen Okupazio Eguna, bihar, hilak 23. Bonbere-nea txarangarekin kalejira egingo dute lehenik eta behin 19:30ean eta ondoren afaria izango dute 21:00etan Bonberearen bertan. Su artifizialak ere botako dituzte 00:00etatik aurrera.

### Proiektzioa

■ **Alegia.** Gaztetxerari 22. urtemuga dela-eta Nepaleko treking batetako proiektzioa antolatuko dute. 21:30ean izango da.

### Zinema

■ **Alegia.** Zine-kluba Gaztetxean bihar 21:30etik aurrera Gaztetxean 22. urteurrena dela-eta.

### Kontzertuak

■ **Tolosa.** Laskorain txiki eta Laskorain abesbatzen Eguberri kontzertua Sakramentinoen elizan 20:00etatik aurrera. Laskorain ikastolak antolatutako ekitaldia da.  
■ **Tolosa.** Tolosako Orfeoaren Eguberri kontzertua, bihar 20:30etik aurrera Leidor antzokian.  
■ **Tolosa.** Tolosako Musika Bandaren Eguberri kontzertua, etzi 12:00etan Zerkausian.  
■ **Tolosa.** Musika Bandaren Olenzero kalejira Alde Zaharreko kale-etan zehar, Gorriti plazatik 20:00etan abiatuta. Plaza Zaharrean herriko abesbatzekin eta herritarrek in Eguberri kanta abestuko dituzte denek elkarrekin.

### Tailerrak

■ **Leitza.** Saskigintzaren eta malabaren tailerra Atekabeltz gaztetxean 16:00etan.  
■ **Leitza.** Paperezko karterak eta hondar koloretuak egiteko tailerra, bihar 16:00etan Atekabeltz gaztetxean.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga J. Korreo kalea, 2. 943 67 0128.  
■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.  
■ **Irurtzun.** Mutilloa, A.M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.



Herenegun eskaini zuten lehen meza Belauntzako elizan, urtebete zaharberritze lanak egiten aritu eta gero. HITZA



Herenegun eskaini ahal izan zuten lehen meza berritutako eraikinean; urte betez aritu dira zaharberritze lanak egiten eta teilatua, zoruak, estruktura eta argia berritu dizkiote.

# Belauntzako eliza eraberriturik

## ERREDAKZIOA

**B**ukatu dira Belauntzako elizaren eraberritze lanak. Urtebete eman dute eraikina zaharberritzen eta herenegun eman ahal izan zuten bertan lehen meza.

2008. urteko azaroan hasi zituzten obrak, eta indusketetan XI. mendeko beste eliza baten oinarriak ere aurkitu zituzten. Azkenaldian itxita eduki dute eliza oso egoera larrian zegoelako eta horren ordez San Jose basilizan eskaintzen zituzten mezak.

Herenegun ospatutako inaugurazio mezan 100 pertsona baino gehiago bertaratuta ziren eta «eraberritze lanez arduratu diren Belauntzako herritarren batzordekoek eskerrak eman zizkieten bertaratutako guztiei», argitu du Iñaki Otamendik, herriko Kultura Dinarantzak.

### Zorutik teilatura

Teilatua, estruktura, zoruak eta argia eraberritu dituzte eta horretarako 500.000 euro inbertitu dituzte, gutxi gorabehera.

Diru-laguntza emateagatik batzordekoek eskerrak eman zizkieten Gipuzkoako Foru Aldundiari, Udalarri, Kutzari eta herritarrei, «bai Belauntzan eta baita heretik kanpo bizi direnei ere, denok egin baitituzte ekarpenak», nabarmendu zuten.

Joan Maria Uriarte Gotzaina eta beste hiru apaizek hartu zuten parte inaugurazioko mezan, hau da, Joxe Mari Madinak, Martin Garmendiak, Belauntzan urtetan apaiz egondakoak, eta gaur egun bertako apaiza den Felix Azur-

mendik. Datozen egunetan Belauntzako elizan ekitaldi gehiago ospatuko dituzte, hala ere.

Hilaren 26ean EITBk mezaren grabazioa egingo du 19:00etan eta urtarilaren 1eko 11:00etako meza ere zuzenenean emitituko dutela jakinarazi dute.

**Leaburu, Gaztelu eta Belauntza**  
Ekitaldi berezi hauetarako, gainera, Leaburu, Gaztelu eta Belauntza herrietako eliztarrak elkarrekin entseatzeko aritu dira azken asteetan.